

ALEGAZIO-TXOSTENA, NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ZENTRO SOZIOSANITARIOETAKO FARMAZIA-ZERBITZUEN ETA MEDIKAMENTU- GORDAILUEN FARMAZIA-ARRETA ARAUTZEN DUEN FORU DEKRETU PROIEKTUARI BURUZKOA

1. ENTZUNALDIA ETA PARTE-HARTZEA.

Nafarroako Foru Komunitateko zentro soziosanitarioetako farmazia-zerbitzuen eta medikamentu-gordailuen farmazia-arreta arautzen duen Foru Dekretu proiektua Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren Atarian argitaratu zen 2021eko otsailaren 12an, herritarrek parte hartzeko eta entzunaldiaren izapidea betetzeko, egokitzat jotzen ziren alegazioak eta hobekuntzarako iradokizunak aurkez zitezten.

Honako pertsona fisiko edo juridiko hauek aurkeztu dituzte alegazioak edo iradokizunak:

- NAFARROAKO FARMAZIALARIEN ELKARGO OFIZIALA (COFNA)
- OSPITALEKO FARMAZIAREN ESPAINIAKO ELKARTEA (SEFH)
- EH-BILDU NAFARROA

2. AURKEZTU DIREN ALEGAZIO EDO IRADOKIZUNEN ANALISIA ETA EBAZPENEA.

2.1. Nafarroako Farmazialarien Elkargo Ofizialaren (COFNA) alegazioak

COFNak honako ekarpen hauek egin ditu:

1. Lagundurikoen plazak

Alegatu duenez, el Tribunal Superior de Justicia de Aragón ha anulado parcialmente el Decreto 92/2019 de Aragón, declarando nulo el artículo 4.1, que obliga a que todos los centros sociales de cien o más camas tengan la obligación de disponer de un servicio de farmacia propio o un depósito vinculado de medicamentos. Para ello se basa en que el mencionado artículo contraviene la norma nacional, el Real Decreto-Ley 16/2012, que limita la obligación a los centros sociales de cien o más camas en régimen de asistidos.

Asimismo, en Navarra la Ley Foral 12/2000 de Atención Farmacéutica en sus artículos 35 y 38 hace referencia a “plazas de asistidos”.

Dado que la justificación legislativa para no utilizar el término “plazas de asistidos” en este Decreto Foral se basa en el Decreto Foral 6/2008 de 19 de enero, entendemos que podría contravenir la jurisprudencia nacional. Por tanto, proponemos sustituir el término “plazas” manteniendo “plazas de asistidos”.

Partez baiesten da

“Plazak” terminoaren ordez, “mendekotasun-egoeran daudenen plazak” terminoa jarriko dugu, eta ez “lagundurikoen plazak”, foru dekretuaren sarreran adierazten diren arrazoi hauengatik:

“Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari dagokionez, balorazio-testa eta “berez baliatzen dena” edo “lagundurikoa” kalifikazioak erregulatzen zituen araua, hots, Hirugarren adineko pertsonen mendekotasun-maila baloratzeko metodo ofiziala (Delta testa) onesten duen apirilaren 6ko 126/1998 Foru Dekretua, 2009ko otsailaren 10ean baliogabetu zuen urtarrilaren 19ko 6/2008 Foru Dekretuak. Foru dekretu horren bidez arautu ziren, hain zuzen ere, mendekotasun-egoera baloratzeko Baloraziorako Talde Teknikoa,

mendekotasun-egoera baloratu eta aitortzeko prozedurak eta Nafarroako Foru Komunitatean mendekotasuna duten pertsonendako Banakako Arreta Programa prestatzeko prozedurak.

Hori dela-eta, Nafarroako Foru Komunitatean lagundurikoen aitortza arautzen zuen araudia hainbat araudik ordezkatu dutela ondoriozta dezakegu; foru arauak estatuko araudiaren terminologiara eta baloraziora egokitu dira, eta, hortaz, “lagundurikoa” terminoa desagertu da. Hala, “mendekotasun-egoeran dauden pertsonak” terminoa hartu dugu, modu orokortuan.

Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak igorri duen txostenean ondorioztatzen denez, gaur egun ez litzateke “lagundurikoa” terminoa erabili beharko: “mendekotasun-egoeran dauden pertsonak” da termino zuzenena.

2. 6. artikulua. Farmazia-arreta, ehun plaza baino gutxiago dituzten zentro soziosanitarioetan.

Honako hau alegatu da paragrafo honen inguruan:

“Con carácter excepcional, los depósitos de medicamentos de centros sociosanitarios de titularidad privada se podrán vincular a un servicio de farmacia de un centro de la misma titularidad”

Entendemos que podría ser el caso de un centro sociosanitario con pocas plazas situado en una zona rural, cuyo depósito podría vincularse a otro centro sociosanitario de la misma titularidad, con otras características como un mayor número de plazas y situado en núcleos urbanos, como Pamplona, por ejemplo.

Propuesta: Eliminar el párrafo, teniendo en cuenta que el papel asistencial y la atención farmacéutica prestada por las farmacias rurales, de forma inmediata y cercana, supone un recurso sanitario de relevancia tanto para este tipo de centros, como para los habitantes de las zonas rurales. Precisamente, una de las grandes ventajas que presenta frente a otras alternativas de abastecimiento, es su adaptabilidad logística y rapidez de respuesta ante una

urgencia. Eliminando la posibilidad de que una farmacia rural gestione el depósito de medicamentos de un centro sociosanitario de pocas camas, se pone en riesgo la supervivencia de esa farmacia. Su cierre supondría una pérdida de servicios en la zona que contribuiría a la despoblación de la misma.

En caso de mantenerlo, entendemos que debería detallar cuáles serían las situaciones excepcionales a los que se refiere.

Ez da baiesten

Osasun Sistema Nazionalaren jasagarritasuna bermatu eta haren prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko premiazko neurriei buruzko apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege Dekretuak 6. artikuluan ezartzen du osasun-laguntza espezifikorik ematen ez duten, ospitaleko farmazia-zerbitzu propiorik ez duten eta edukitzeko betebeharririk ere ez duten gizarte-laguntzako zentroek gordailu bat edukiko dutela. Gordailu hori, sektore pribatuko zentroetan, farmazia-eremu bereko farmazia-bulego bati edo ospitaleko farmazia-zerbitzu bati lotuta egonen da.

Hots, sektore pribaturako, medikamentu-gordailu bat farmazia-bulego bati nahiz farmazia-zerbitzu bati lot dakiokela ezartzen da. Farmazia-zerbitzu bati lotzeko aukera kenduz gero, estatuko araudia urra liteke; zehazki, 16/2012 Errege Lege Dekretuaren 6.3 artikulua.

Foru dekretuan, beraz, ehun plaza baino gutxiagoko zentro soziosanitario bateko medikamentu-gordailua farmazia-zerbitzu bati lotzeko aukera jasoko da, 16/2012 Errege Lege Dekretuak xedatzen duen bezala:

6.2. Ehun plaza baino gutxiago dauzkaten eta farmazia-zerbitzurik ezarrita ez duten zentro soziosanitarioek honako hauei loturiko medikamentu-gordailua eduki beharko dute:

a) Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartutako farmazia-zerbitzu bati, Nafarroako Foru Gobernuaren titulartasuneko zentroa izanez gero.

b) Farmazia-eremu bereko edo herri bereko farmazia-bulego bati edo farmazia-zerbitzu bati, titulartasun pribatuko zentroa izanez gero; betiere, Nafarroako Foru Komunitatean badago.

2. 7. artikulua. Eginkizunak

Farmazia Arretari buruzko 12/2000 Foru Legearen 36. artikuluan jasotzen den eginkizun hau gaineratzea proposatu dute:

1. Participar, a través de la Comisión de Farmacia, en el proceso de selección de los medicamentos, productos sanitarios y dietoterápicos a adquirir por el centro, actuando, en todo caso, bajo criterios de eficiencia, seguridad y calidad.

Baiesten da

7.1 artikulua gaineratu dugu, baina medikamentuei eta osasun-produktuei buruz aritzeko, ez produktu dietoterapikoei dagokienez.

4. 8. artikulua. Langileen betebeharrak

8.2. Farmazialari laguntzaileak

Paragrafo honetan, “ahal dela” gaineratzea proposatu dute:

2.b) En casos excepcionales de no disponibilidad de farmacéuticos especialistas en farmacia hospitalaria, justificados y acreditados documentalmente, podrán prestar servicio como adjuntos, profesionales farmacéuticos que, preferentemente, cuenten con formación y experiencia...

Ez da baiesten

Farmazia Arretari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legeak langileen betekizunei buruzko 37. artikuluan ezartzen du ospitaleko farmazia-

zerbitzuetako eta zentro soziosanitarioetako arduradunek eta zerbitzu edo zentro horietan lan egiten duten gainerako farmazialariek farmazialari espezialistaren titulua eduki behar dutela.

Hala ere, 2.b) apartatua salbuespenez sartu da, ospitaleko farmaziako farmazialari espezialistarik eskura ez egoteagatik zentro soziosanitarioetan sortzen diren benetako arazoak konpontze aldera. Gaur egun, zailtasun handia dago zentro soziosanitarioetan profesionalki arituko diren farmazialari espezialistak aurkitzeko. Espezialisten gabezia horren aurrean malgutasunez jokatzeko neurririk hartzen ez bada, zentro soziosanitario batzuk itxi litezke, eta horrek eragin kaltegarria izanen luke egoiliarrengan eta haien senideengan.

Alabaina, malgutasun hori ongi mugatu behar da; horrenbestez, ezin daiteke “ahal dela” esapidea sartu, horren ondorioz edozein farmazialarik egin ahalko lukeelako lan, laguntzaile gisa, zentro soziosanitario baten farmazia-zerbitzuan. Foru dekretu proiektuan, zentro soziosanitarioen farmazia-arretan prestakuntza eta eskarmentua dauzkaten profesional farmazialarietara mugatzen da malgutasun hori.

b) Ospitaleko farmazian espezializatutako farmazialaririk ez bada eskura (dokumentu bidez justifikatu eta egiaztatuz), farmazialari laguntzaile gisa salbuespenez jardun dezakete zentro soziosanitarioetako farmazia-arretan prestakuntza eta esperientzia dituzten farmazialari profesionalek. Salbuespenezko kasu horien berri eman beharko zaio aldeztatik Osasun Departamentuari, hark esan dezadan ados dagoen.

Bestalde, Ospitaleko Farmaziaren Espainiako Elkarteak (SEFH) salbuespen hori alegatu du, eta baietsi egin da; hortaz, azkenik, b) atala kendu dugu.

8.3. Laguntzaileak

Adierazi dute haien ustez “las tareas técnicas deberían desempeñarlas técnicos de Grado Medio en Farmacia y Parafarmacia”

Baiesten da

Honela geratuko da 8.3 artikulua egungo testua:

3. Laguntzaileak.

Zentro soziosanitarioetako farmazia-zerbitzuek behar diren laguntzaileak izanen dituzte, teknikoki eta administratiboki zuzen funtziona dezaten. Farmazia eta Parafarmaziako erdi-mailako teknikariek egin beharko dituzte lan teknikoak.

5. 9. artikulua: Lokalak eta ekipoak

9.8 artikuluan aldaketa hau egitea proposatu dute:

8. ~~Los locales~~ El servicio deberá disponer del Libro...

Baiesten da

6. IV. KAPITULUA: Medikamentu-gordailuak

12. artikulua: Eginkizunak

Eginkizun batzuen inguruko testuan aldaketaren bat egitea proposatu dute:

1. Participar en la selección y adquisición de medicamentos, productos sanitarios y dietoterápicos.

2. Garantizar la custodia y conservación de los medicamentos, productos sanitarios y dietoterápicos de aplicación en el centro.

3. Establecer un sistema de dispensación interna de medicamentos, productos sanitarios y dietoterápicos, seguro y personalizado, de manera que garantice su correcta administración en las pautas y dosis prescritas, favoreciendo la adherencia terapéutica. Si fuera necesario, se incluirá el reacondicionamiento de medicamentos en Sistemas Personalizados de Dosificación, según lo establecido en la Orden Foral 622E/2017.

4. Desarrollar actividades de atención farmacéutica, *revisando la medicación de los residentes para identificar problemas relacionados con los medicamentos y contribuir a prevenir o evitar posibles resultados negativos asociados al uso de medicamentos, productos sanitarios o dietoterápicos, en coordinación con el resto del equipo asistencial del centro.*

5. *Impulsar la actividad de Farmacovigilancia en el centro, promoviendo la detección y notificación de sospechas de reacciones adversas al Centro de Farmacovigilancia de Navarra.*

• *Facilitar la gestión de residuos derivados de los medicamentos, productos sanitarios y dietoterápicos del depósito, a través del SIGRE.*

Baisten da

12.1 apartatutik 12.5 apartatura bitartean jasotzen diren eginkizunetarako proposatu diren aldaketak baiesten dira, baita hondakinen kudeaketarekin zerikusia duen eginkizun berria ere, baina “SIGREren bidez edo hondakinak kudeatzeko beste sistema baimendu baten bidez” jarrita.

Gordailuko medikamentuen eta osasun-produktuen ondoriozko hondakinak kudeatzen laguntzea, SIGREren bidez edo hondakinak kudeatzeko beste sistema baimendu baten bidez.

Eginkizunetara ez da “dietoterapikoak” hitza sartuko. Medikamentuak eta osasun-produktuak bai.

7. 13. artikulua. Farmazia-zerbitzu bati edo farmazia-bulego bati lotzea

1. Medikamentu-gordailua farmazia-bulegoari edo farmazia-zerbitzuari lotzeko, lotura-kontratu edo -akordio bat ezarri beharko da, eta bertan definituko dira bi aldeen jarduerak eta erantzukizunak, medikamentuen eta osasun-produktuen garraioa barne dela.

Proponen que, para facilitar la acreditación y funcionamiento de los depósitos, se incluya como Anexo un modelo de contrato o acuerdo de

vinculación que detalle, entre otros aspectos, las mencionadas actividades y responsabilidades tanto del centro sociosanitario como de la farmacia o servicio al que se vincula.

Eredu bat atxiki dugu, adibide modura (l. eranskina)

Baiesten da

Ereduaren testua zertxobait aldatu dugu.

8. 15. artikulua. Lokalen eta ekipoen betebeharrak

6. Medikamentu-gordailua lotua duten farmazia-bulegoek edo farmazia-zerbitzuek aski toki izan beharko dute, indarrean dagoen araudian ezarritako eginkizunak gauzatzeko eta zentro soziosanitarioei farmazia-arreta egokia bermatzeko.

Behar bezala bereizitako eremu bat izan beharko dute, haietan medikamentu-gordailuari banatu beharreko medikamentuak eta osasun-produktuak prestatzeko, baita eskatutako ekipamendurako aski toki ere, erabilitako banaketa-sistemaren arabera.

Proponen que este último párrafo se elimine. Argumentan que las zonas dedicadas a esta actividad estarán detalladas en los correspondientes procedimientos de la farmacia o del servicio de farmacia y que, por otra parte, si la farmacia realiza la actividad de Reacondicionamiento de Medicamentos en Sistemas Personalizados de Dosificación, deberá haber presentado la pertinente Declaración responsable y cumplir los requisitos de la Orden Foral 622E/2017..

Baiesten da

Aurreko paragrafoa honela geldituko da idatzirik:

~~Behar bezala bereizitako eremu bat izan beharko dute, haietan medikamentu-gordailuari banatu beharreko medikamentuak eta osasun-produktuak prestatzeko, baita eskatutako ekipamendurako aski toki ere, erabilitako banaketa-sistemaren arabera. Medikamentuak dosifikazio-sistema pertsonalizatuetan prestatzen badira, Osasuneko kontseilariaren urriaren 9ko 622E/2017 Foru Aginduan ezarritakoa bete beharko da. Foru agindu horren bidez ezartzen da zein baldintza tekniko-sanitario diren aplikatzekoak Nafarroako Foru Komunitateko farmazietan botiken dosifikazio-sistema pertsonalizatuak prestatzeko eta entregatzeko orduan.~~

9. 16. artikulua. Kalitate-sistema

Alegan que el artículo no hace referencia al Sistema de Calidad del propio centro sociosanitario. Entienden que, al igual que la farmacia o el servicio de farmacia, el centro sociosanitario deberá contar en su Sistema de Calidad con los Procedimientos Normalizados de Trabajo que describan su actividad y responsabilidad, en cuanto al depósito de medicamentos.

Manifiestan que, de acuerdo con el punto 3 de este mismo artículo, la responsabilidad en cuanto a la elaboración, aplicación y cumplimiento de los PNTs y registros, deberán definirse en el contrato o acuerdo de vinculación. Entendemos que también incluyen los correspondientes a los centros sociosanitarios.

Tal y como específica, por ejemplo, Orden Foral 622E/2017, de 9 de octubre, por la que se establecen los requisitos técnico sanitarios aplicables a la preparación y entrega de los sistemas personalizados de dosificación de medicamentos en las oficinas de farmacia de la Comunidad Foral de Navarra, entendemos que los procedimientos correspondientes a atribuciones del personal, gestión de pedidos a proveedores, recepción y control de conformidad de medicamentos y productos sanitarios, almacenamiento, gestión

de estupefacientes, farmacovigilancia, limpieza de locales y equipamiento y devoluciones, podrán estar descritos en PNTs específicos.

Baieren da

Hona hemen kalitate-sistemari buruzko 16. artikularen testu berria:

10. 16. artikulua. Kalitate-sistema.

1. Medikamentu-gordailua lotua duen farmazia-bulegoak edo farmazia-zerbitzuak, baita gordailua fisikoki kokatuta duen zentro soziosanitarioak ere, laneko prozedura normalizatuak (LPN) eta erregistroak izan beharko ditu, lotura horrekin zerikusia duten jarduerak azaltzeko:

- a) Langileen eginkizunak.
- b) Hornitzaileei eskaerak kudeatzea.
- c) Medikamentuak eta osasun-produktuak jaso eta haiekiko adostasuna kontrolatzeko eremua.
- d) Medikamentuen eta osasun-produktuen biltegiatze orokorra.
- e) Medikamentu termolabilen biltegiatzea.
- f) Medikamentu estupefazienteen kudeaketa.
- g) Medikamentuak banatzeko sistema.
- h) Bana-banako jarraipen farmakoterapeutikoa.
- l) Medikamentuen garraioa eta entrega.
- j) Farmakozaintza-sistema.
- k) Lokalen eta ekipamenduen garbiketa.
- l) Itzulketak.
- m) Medikamentuak erretiratzea.
- n) Botikinak kontrolatzea.
- o) Farmazialari arduradunaren autoikuskapenak medikamentu-gordailuan.

2. Dokumentazio hori eguneratua eta sinatua egonen da, eta horretan ari diren langileek ezagutu beharko dute. Farmazia-bulego edo -zerbitzuaren eta

zentroaren kalitatea kudeatzeko sisteman sartuta egonen da, osasun-agintarien eskura.

3. Askotariko prozedurak eta erregistroak prestatu, aplikatu eta betetzeko ardura zehaztua geldituko da behar den akordioan; hain zuzen ere, medikamentu-gordailua farmazia-bulegoari edo farmazia-zerbitzuari lotzekoan.

10.18. artikulua: Medikamentuen garraioa.

Manifiestan que, teniendo en cuenta que en la mayor parte de los casos el transporte se realiza dentro de la misma Zona Farmacéutica, de manera que la distancia y duración del mismo son mínimas, proponen sustituir los puntos 2, 3, 4 y 5 por:

Cuando el transporte de medicamentos a los depósitos de medicamentos se realiza dentro de la misma Zona Farmacéutica y no exceda los 30 minutos, se garantizará que se mantienen las condiciones de almacenamiento necesarias, teniendo en cuenta factores como las especificaciones del fabricante, la estabilidad del medicamento, la temperatura ambiente y la duración del mismo. Todo ello de acuerdo a lo establecido en el PNT de transporte y entrega de medicamentos.

Partez baiesten da

Zati batean onesten da, kontuan harturik, hain zuzen ere, farmazia-bulegotik medikamentu-gordailurako garraiaketa farmazia-eremu edo herri beraren barruan eginen dela. Alabaina, gutxienez, tenperatura kontrolatu beharko da, arriskuen analisisan oinarrituta, eta zenbait faktore kontuan izan beharko dira; hala nola, medikamentuen ezaugarriak eta egonkortasuna, giro-tenperatura eta garraiaketaren iraupena.

Garraiaketari buruzko 18. artikulua honela geratuko da:

1. Medikamentuak farmazia-bulegotik edo farmazia-zerbitzutik haiekin lotuta dagoen zentro soziosanitarioaren medikamentu-gordailura garraiatuko dira, farmazialari titularraren edo farmazialari arduradunaren erantzukizunpean. Erantzukizun hori dagokion lotura-akordioan jaso beharko da.

2. Medikamentuak eta osasun-produktuak garraiatu bitartean, kontserbazio-baldintza egokiak daudela bermatuko da; horretarako, fabrikatzaileak ezarritako temperatura-zehaztapenak errespetatuko dira, eta garraiorako nahiz entregarako LPNan azaltzen den prozedura beteko.

3. Garraioan zehar, temperatura kontrolatu eta monitorizatu behar da, arriskuen analisisan oinarrituta, eta zenbait faktore kontuan izan beharko dira; hala nola, medikamentuaren egonkortasuna, giro-tenperatura eta garraioaren iraupena.

4. Garraioa hirugarrenek egiten badute, kontratu bat sinatu beharko da. Bertan, bi aldeek dituzten erantzukizunak jaso beharko dira, baita giza erabilerarako medikamentuak banatzeko jarduera onen (BJO) printzipioak eta jarraibideak errespetatzen ote diren egiaztatzeko auditoretzak egiteko aukera ere. Gorabeherak komunikatzeko prozedura zein den ere azalduko da.

5. Garraiorako medikamentuak banatzeko entitate bat erabiltzen bada, entitate horrek banaketarako jarduera egokiak betetzen dituela dioen ziurtagiri bat izan beharko du.

6. Bermatu egin behar da medikamentuak eta osasun-produktuak hartzaile zuzenari eta helbide zuzenean entregatzen zaizkiola, epe egokian eta trazabilitatea bermatuz. Emate-agiria beteko da, eta, bertan, honako datu hauek sartuko dira:

- a) Zer egun eta ordutan entregatu den.
- b) Entregatutako medikamentuen datuak, lotea barne dela.

- c) Entregatutako kopurua.
- d) Farmazia-bulegoaren edo farmazia-zerbitzuaren izena eta helbidea.
- e) Zentro sanitarioaren izena eta helbidea.

11.V. KAPITULUA: BAIMENA EMATEKO PROZEDURA

21. artikulua: Medikamentu-gordailuak baimentzeko eskaerak

Lotura partekatua:

De acuerdo con el punto 3 del artículo 13, es posible vincular un depósito de medicamentos a más de una oficina de farmacia simultáneamente, siempre que se garantice el cumplimiento de los requisitos establecidos en el presente Decreto Foral. Entendemos por lo tanto que el punto 3 debería contemplar esta opción.

Asimismo, se podría incluir un párrafo explicativo del funcionamiento de las farmacias en estos casos. Por ejemplo:

Caso de optar por el sistema de vinculación compartida, sistema de prestación de servicio que garantice la adecuada atención farmacéutica. (Se podría incluir un Modelo como Anexo al Decreto Foral).

Los puntos 4 y 8 podrían resumirse en un único punto, tal y como indica el punto 2 del artículo 14 del presente Decreto Foral:

Memoria de actividades a desarrollar por el farmacéutico titular de la oficina de farmacia o por el responsable del servicio de farmacia respecto al depósito de medicamentos al que se va a vincular, incluyendo la dedicación horaria de los farmacéuticos que vayan a desarrollar alguna actividad en el mismo. (Se podría incluir un Modelo como Anexo al Decreto Foral).

Según nuestro criterio, la documentación requerida en los puntos 7 y 9 del artículo 21 no debería acompañar a la solicitud de creación/funcionamiento presentada por el centro sociosanitario, sino que la farmacia debería tenerla a disposición de las autoridades sanitarias, tal y como indica el punto 2 del artículo 16, del presente Decreto Foral.

Asimismo, entendemos que sería conveniente elaborar los modelos correspondientes a memoria de actividades y prestación de servicio en caso de vinculación compartida, e incluirlos como anexos en el DF junto con el modelo de acuerdo de vinculación anteriormente comentado.

Partez baiesten da

Honela geldituko litzateke 21.1.a) artikulua (Sortzeko baimena):

3. Zentro soziosanitarioak adieraziko du gordailua zein farmazia-bulegori edo farmazia-zerbitzuri lotzen zaion, eta bien arteko lotura-kontratu edo -akordioa aurkeztu, zentro soziosanitarioaren legezko arduradunak eta farmazia-bulegoaren farmazialari titularrak edo farmazia-zerbitzuaren farmazialari arduradunak sinatua.

Lotura partekatua bada, farmazia-arreta egokia emanen dela bermatzeko sistema zein den azaldu beharko da.

4. Farmazia-bulegoaren farmazialari titularrak edo farmazia-zerbitzuaren arduradunak bulego edo zerbitzu horri lotuko zaion medikamentu-gordailuari dagokionez egin behar dituen jardueren oroitidazkia, bertan jardueraren bat eginen duten farmazialarien ordu-dedikazioa barne dela.

Gordailuak lotuta izanen duen farmazia-bulegoaren edo -zerbitzuaren planoari buruzko 7. puntuan eskatzen den dokumentazioa kendu egin da, baina kalitate-sistemari buruzko 21. artikulua 9. puntuari dagokionari eutsi zaio (LPNen zerrenda eta erregistroen ereduak), medikamentu-gordailua baimentzeko eskaerekin batera aurkeztu behar den funtsezko dokumentazioa delako.

Bestetik, ez dugu uste beharrezkoa denik, lotura partekatua bada, jardueren oroitidazkiari eta zerbitzu-emateari buruzko ereduak egitea eta foru dekretuaren eranskinetan sartzea.

12. Bestelakoak

Zentroen betebeharrak/erantzukizunak

Proponen que, además de las funciones de los servicios de farmacia y depósitos de medicamentos, en algún capítulo se podrían incluir responsabilidades de los centros, tales como:

□ Permitir el acceso a las instalaciones del centro a los farmacéuticos, o responsables del transporte en su caso, para el correcto almacenamiento y conservación de los medicamentos, productos sanitarios y dietoterápicos.

□ Comunicar a la oficina de farmacia las altas y bajas de las personas residentes.

□ Responder directamente de la conservación del equipamiento y custodia de los medicamentos, productos sanitarios y dietoterápicos depositados en los centros, sin perjuicio de las responsabilidades de la oficina de farmacia vinculada.

□ Designar una persona del centro como responsable del cumplimiento de los requisitos establecidos en el DF y la coordinación con la oficina de farmacia vinculada.

Otra opción, podría ser incluirlas en el Contrato /Acuerdo de vinculación.

Baiesten da

Zentro soziosanitarioen betebeharrak gaineratu zaizkio lotura-kontratuaren edo -akordioaren ereduari.

I. ERANSKINA

**MEDIKAMENTU-GORDAILUA FARMAZIA-BULEGO/FARMAZIA-ZERBITZUARI
LOTZEKO AKORDIOAREN EREDUA**

....., 20....(e)koarena

Bildurik:

..... zentro soziosanitarioa
(datuak)

..... farmazia-
bulegoa/farmazia-zerbitzua (datuak)

Erabakia:

..... zentroko medikamentu-gordailua
..... farmazia-bulegoari/farmazia-zerbitzuari
lotuko zaio.

XXXX zentro soziosanitarioak:

Foru Dekretuak ezartzen dituen betekizunak betetzen dituela eta honako LPN eta erregistro hauek dituela adierazten du:

.....
.....

Honako konpromiso hauek hartzen ditu:

- Farmazialariei eta garraioaren nahiz horniduraren arduradunei zentroko instalazioetara sartzen utziko die, medikamentuak, osasun-produktuak eta produktu dietoterapikoak behar bezala biltegitatu eta kontserbatzeko.
- Pazienteen tratamendu farmakologikoen jarraipena behar bezala egiteko datuetara edo sistema informatikoetara sartzen utziko die farmazialari arduradunei, datu pertsonalak babesteko araudian ezartzen dena errespetaturik.

- Gordailura lotuta dagoen farmazia-bulegoari egoiliarren alden eta baje berri emanen die.
- Zentroetan dagoen ekipamenduaren eta zentroetan gordeta dauden medikamentuen eta osasun-produktuen zaintzaren erantzule zuzena izanen da, loturiko farmazia-bulegoaren erantzukizunak bazter utzi gabe.
- Zentroko langile bat izendatuko du loturan eskuratutako konpromisoak betetzeaz arduratzeko eta loturiko farmazia-bulegoarekin koordinatzeko.

..... **farmazia-bulegoak/farmazia-zerbitzuak**

Foru Dekretuak ezartzen dituen betekizunak betetzen dituela eta honako LPN eta erregistro hauek dituela adierazten du:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Honako konpromiso hauek hartzen ditu:

- Gordailuko medikamentuak eta osasun-produktuak behar bezala hornitu, kontserbatu eta zaintzea.
- Foru dekretu honetan aurreikusten diren eginkizunak betetzea.

Lotura partekatua bada:

Farmazia-arreta egokia ematen dela bermatzeko, loturiko farmaziek honela jardunen dute:

.....

.....

.....

.....

.....
.....
.....

Medikamentuak eta osasun-produktuak garraiatu eta entregatzeko baldintzak:

Garraiorako nahiz entregarako LPNan zehaztuta daude, eta honako hauek dira:

.....
.....
.....

Kontratu hau bi aletan sinatuko da, alde bakoitzak jatorrizko bat eduki dezan.

Zentro soziosanitarioa

Farmazia-bulegoa/farmazia-zerbitzua

2.3. Ospitaleko Farmaziaren Espainiako Elkartearen (SEFH) alegazioak

SEFHren ekarpenei erantzun aurretik, egoki ikusi dugu foru dekretu proiektu honen aurrekariak eta testuingurua aipatzea.

Nafarroako Foru Komunitatea aitzindaria izan zen zentro soziosanitarioetako farmazia-zerbitzuak eta medikamentu-gordailuak arautzen, Farmazia Arretari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legearen bidez. Foru lege hori argitaratu ondoren, lehenengo farmazia-zerbitzuak sortu ziren zentro soziosanitarioetan.

Lege horretan jada, farmazia-zerbitzuetan lan egiten duten farmazialariek farmazialari espezialistaren titulua eduki behar dutela ezartzen zen. Farmazia-zerbitzu horiek eta horietan lan egiten duten farmazialari espezialistak eredu izan dira beste autonomia-erkidego batzuetako farmazia-zerbitzuetarako.

Hamabi urte igaro arte, estatu-mailako araudian ez zen jaso zentro soziosanitarioetako farmazia-zerbitzuen eta medikamentu-gordailuen

